

EUSTATEK aurreneko aldiz Ekoeuskadi 2020 adierazleak aurkezten ditu

Adierazle hauek Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategian definitutako helburuetara lotuta daude

EUSTATEK aurreneko aldiz Ekoeuskadi 2020 adierazleak aurkezten ditu, Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategian (Ekoeuskadi 2020) ezarriak. 27 adierazleen multzoa da, ezarritako helburu estrategikoei lotuta daude eta Oheburuko adierazleen – hauek Europa 2020 estratergiarako definitutakoekin bat datoz- osagarri dira.

Hamar dira Europar Batasunekoekin aldera daitezkeen adierazleak; Euskal AEk haietako zortzitan balio hobeak edo antzekoak ditu: Baliabide naturalen produktibitatea, Biztanleko BPG, Zor publiko gordin sendotua, Hiri hondakinak, Garraioaren kontsumo energetikoa, PISA ebaluazioa, Garapenerako laguntza ofiziala eta Biztanleko CO₂ igorpenak.

Berriz, IUS eta, batez ere, Mendekotasun energetikoa 27-EBko batez bestekoaren azpitik daude.

Denboran zehar, Euskal AEk dituen bilakaerak bai positiboak, bai negatiboak dira.

- Berrikuntzarekin, leihakortasunarekin, ekoefizientziarekin eta kanporako irekidurarekin lotutakoen artean, hazi dira Baliabide naturalen produktibitatea eta Kanpo-merkataritzaren irekidura-maila; urritu, Biztanleko BPG eta eutsi Europako Berrikuntza-Indizea (IUS).
- Gizarte kohesioaz eta integrazioaz, okerrera egiten du Gazte-okupazio tasak eta hobera Pertsona-errentaren kontzentrazio-indizeak eta Inklusio-mailak.
- Euskal administrazioen zor gordin sendotua, BPGren portzentaje gisa neurturik, hazi egin da; baita ere Gizarte gastu publikoa; lehengoan dirau Jaiotza-tasak.
- Baliabide naturalen babesean eta biodibertsitatean, lotutako adierazleen bilakaera ezberdina da: Landa-biztanleen tasak gora egin du; lehengoan dirau Eraikitako eremuen portzentajeak; jaitsi, Biztanleko hiri-hondakinen sorrera. Okerrera egin du Hegazti arrunten indizeak.
- Mendekotasun energetikoaren adierazlean aldaketa handirik ez; mugikortasunean, behera egin dute Garraioaren kontsumo energetikoak, Salgaien errepide-garraioak eta Bidaiarien garraio pribatuak, guztirakoaren gaineko ehuneko gisa neurturik.
- Hezkuntza-sisteman, hobera egin dute bai PISA ebaluazioaren adierazleak baita Euskal Unibertsitate Sistemaren argitalpen zientifikoek ere; Ikasketa iraunkorraren adierazleak –alegia, 25-64 urte bitartekoen prestakuntzak- gora egin du; Euskal kulturaren kanpo-zabalkunderakoak behera egin du, aurrekontua aintzat harturik.

- Hauteskunde parte-hartzeak behera egin du; Arartekoari egindako kexa-kopuruak, administrazioarekiko gogobetetasun-eza adierazten duenak, gora egin du aztertutako azken urtean.
- Behera egin dute Garapenerako laguntza ofizialak, BPGren portzentajea, eta baita ere Biztanleko CO₂ igorpenek.

1 taula. Ekoeuskadi 2020 adierazleak

	Oinarri unitatea	Erreferentzi urtea	Datua	Aurreko datua
I-1.1 IUS (Berrikuntzako adierazleen panela)	Kokapena	2011	15	15
I-1.2 Baliabideen produktibitatea	€/kg	2009	2,03	1,86
I-1.3 Per cápita BPG	EU27=100	2010	132	134
I-1.4 Irekitasun maila	%	2011	138	127
I-2.1 Errenta pertsonalaren kontzentrazio indizea		2009	0,533	0,546
I-2.2 Inklusio sozialaren maila	%	2010	80,5	77,4
I-2.4 Gazteen okupazio tasa	%	2011	56,3	57,1
I-3.1 Jaiotza tasa	%	2010	9,7	9,7
I-3.2 Zor publiko gordin sendotua	%	2010	11,5	8
I-3.3 Gastu sozial publikoa	%	2008	23,1	21,6
I-4.1 Eraikitako eremuak	%	2010	8,03	8,11
I-4.2 Landa biztanleak	%	2010	10,1	9,7
I-4.3 Hiri hondakinak	kg/biz.	2010	491	513
I-4.4 Hegazti arrunten indizea	oinarri urtea: 2009	2011	72,9	84,5
I-5.1 Mendekotasun energetikoa	%	2010	94,1	94,6
I-6.1 Garraioaren kontsumo energetikoa	oinarri urtea: 2000	2010	92,2	93,5
I-6.2 Salgaien errepide bidezko garraioa	%	2010	76,16	78,91
I-6.3 Bidaia-errepide garraio pribatua	%	2011	35,6	38,6
I-7.1 PISA ebaluazioa	Distantzia	2009	8,4	4,2
I-7.2 Argitalpen zientifikoak	Kop.	2009	1.262	1.269
I-7.3 Euskal kulturaren kanpo-zabalkunderako laguntza	Milaka €	2012	3.670	3.880
I-7.4 Ikasketa iraunkorra	%	2011	3,0	2,7
I-8.1 Hauteskunde parte-hartzea	%	2008	57,6	64,37
I-8.2 Administrazio elektronikoa	%	2010	34,72	
I-8.3 Administrazioarekiko gogobetetasun falta	Kop.	2011	2.347	1.859
I-9.1 Garapenerako laguntza ofiziala	%	2010	0,49	0,51
I-9.2 Biztanleko CO ₂ igorpenak	CO ₂ -(t)/biz	2010	7,1	7,8

Iturria: Eustat

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Teresa Remirez de Ganuza

Tel.: +34-945-01 75 32 Faxe: +34-945-01 75 01